

376/2024 EBAZPENA, martxoaren 5ekoa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Pneumologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen abenduaren 4ko 2646/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Pneumologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko urtarrilaren 15eko EHAA 11 zk. eta 2024ko urtarrilaren 24ko EAO 21 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko otsailaren 14an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Pneumologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Arabako Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 5a.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentea,
JOSÉ MARÍA PÉREZ RAMOS.



KUDEAKETAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN GERENCIA

I. ERANSKINA

ARABAKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO PNEUMOLOGIAKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA.

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Carlos Javier Egea Santaolalla jn.

Baztertuak:

- Inor ez.

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.